



LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, LEHENDAKARITZAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETU- PROIEKTUARI BURUZKOA

92/2024 IL – DDLCN
DNCG_DEC_5024/24_01

I. AURREKARIAK

2024ko azaroaren 11ko datuz, TRAMITAGUNE aplikazioaren bitartez, Lehendakaritzaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak izenburuan zehazten den dekretu-proiektuaren legezkotasun-txostena igor dezala eskatu dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari.

Txosten-eskaerarekin batera, dekretu-proiektuaren testua (euskeraz eta gaztelaniaz) eta jarraian zehazten dugun dokumentazioa bidali digu:

- Hasiera-dekretua, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duena, Lehendakariak 2024ko uztailaren 23an sinatua (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Dekretu-proiektuaren testua (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Aldez aurretiko onarpen-dekretua, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektua aldez aurretik onartzen duena, Lehendakariak 2024ko irailaren 23an sinatua (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Memoria ekonomikoa, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa, Koordinazio eta



Gizarte Komunikazioko Idazkaritza Nagusiaren zerbitzu zuzendariak 2024ko urriaren 18an sinatua (gaztelaniaz)

- Memoria, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuak indarreko arautegian izango duen eraginari buruzkoa, Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak 2024ko irailaren 25ean sinatua (gaztelaniaz)
- Memoria osagarria, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuak indarreko arautegian izango duen eraginari buruzkoa, Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak 2024ko urriaren 21ean sinatua (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Txostena, Emakunderena, zuzendari nagusiak 2024ko urriaren 30ean sinatua (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Txostena, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa, 2024ko urriaren 23an sinatua (gaztelaniaz)
- Txosten juridikoa, Funtzio Publikoko zuzendariarena, Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa, funtzio publikoko zuzendariak 2024ko azaroaren 5ean sinatua (euskeraz)
- Sailen ekarpenak (euskeraz eta gaztelaniaz)

Legezkotasun-azterketara aurkeztutako dokumentazioaren artean ez dago Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostenik, ezta Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostenik ere, baina behar bezala jasota dago biak eskatu direla, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legearen 15.3 g) eta 12. artikuluetan xedatutakoa betez, hurrenez hurren.

Era berean, bidalitako dokumentazioan ez dago espedientearen edukia eta analisi juridikoa egiten duen Sailaren txosten juridiko espezifikorik (aukerakoa, 6/2022 Legearen 15.4 artikulua arabera), ezta dekretu-proiektuaren beren beregiko justifikazio-memoriarik, baina dekretu-proiektuak indarreko arautegian izango duen eraginari buruzko Memorian behar bezala jasotzen dira proposamenaren egokitasuna eta arautzeko aztertu diren bestelako irtenbideak, eta edukiaren azterketa juridiko egokia egiten da. Hortaz, betetzat jotzen dugu 6/2022 Legearen 15.3 artikulua a) eta b) ataletan xedatutakoa.

II. LEGEZKOTASUN-AZTERKETA

Txosten hau jarraian adierazten diren lege eta dekretuetan xedatutakoarekin bat etorri igortzen dugu:

- 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa (5.1 a artikulua)
- 144/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena (11.1 eta 2 b artikulua)
- 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (9.1 i artikulua)
- 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, xedapen orokorrak egiteko prozedurarena (22. artikulua)

I. Proiektuaren xedea, azalpena eta edukia

Legezketasun-azterketara aurkeztutako dekretu-proiektuaren xedea Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzea da, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak ezarritako egiteko eta jardun-arloen zehaztapen berriaren ondorioz.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua arabera, Euskadik bere autogobernu-erakundearen antolaketa, araubidea eta jardueraren antolatzeko ahalmena du. Proiektu-dekretu hau eskumen-esleipen horretan oinarritu egin da, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren Azken Xedapenetako lehenengoak xedatutakoaren arabera.

- DEKRETU-PROIEKTUAREN TESTUAREN AZTERKETA

Testuaren azterketari gagozkiola, dekretu-proiektuaren egitura honako hau da: azalpen-zatia; 23 artikulua, bost kapitulutan banatuak; hiru xedapen gehigarri; xedapen indargabetzailea eta azken xedapena.

Dekretu-proiektuak Idazkaritza Nagusiei eta Zuzendaritzei dagozkien funtzioak zehazten ditu zeharkako jardun-arlo hauetan: kontratazioa, euskera eta berdintasuna. Hala, idazkari nagusiei egokitzen diren jardun-esparrukoak diren arloetako eta indarrean dagoen legeriaren arabera kontratu txikiak ez diren arloetako kontratazio-organoa izatea. Kontratu txikiak direnak, berriz, Zuzendaritzei esleitzen dizkie, Idazkaritzei atxikitako Zuzendaritza horien jardueraren esparrutik haratagokoak direnean izan ezik.

Bestalde, Zerbitzu Zuzendaritzei egokitzen diren kontratu-legerian oinarritutako prozedurak izapidetzea, baita kontratazio-organo legez aritzea Idazkaritza Nagusi bati baino gehiagori eragiten dieten kontratu txikietan ere.

Aurreikuspen horrek bat egiten du Euskadiko Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoarekin, zeinean ezartzen da Administrazio

orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango direla kontratazio-organoak; eta erakunde autonomoetan eta Administrazio orokorra ez beste erakundeetan, berriz, ordezkaritza nagusia duten organoak, salbu eta besterik xedatzen bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan, edo erakunde horiek sortzeko edo haien funtzionamendua zehazteko arauetan.

Euskeraren arloari dagokionez, proiektuak islatu egiten du orain arte Idazkaritza Nagusiek eta Zuzendaritzek partekatutako elkarlana. Bestalde, proiektuan zehaztu egiten da Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritzari dagokiola, Zerbitzu Zuzendaritzarekin koordinatuta, euskeraren erabilera normalizatzeko planaren helburuak definitzea eta plan hori ezartzeko eta ebaluatzeko ekimenak garatzea. Era berean, langileen euskalduntzea eta Hizkuntza normalkuntza prozesua koordinatzea egokituko zaio, Zerbitzu Zuzendaritzarekin elkarlanean.

Berdintasunaren arloan, halaber, orain arte Idazkaritza Nagusiek eta Zuzendaritzek egin izan dituzten funtzioak islatzen dira, baina berdintasun Unitatearen jarduerak zuzentzeko zeregina Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari esleitzen zaio. Lehendakaritzari atxikitako sektore publikoko erakundeei dagokienez, laugarren artikuluan integratzen dira Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasaunerako Euskal Agentzia.

Atxikipenak proiektuaren 5. artikuluan jasotzen dira. Berrikuntza moduan, eta Sailaren eskumenei erreparatuta, honako hauek dira aipagarriak: Lankidetzeta eta Elkartasunerako Erakunde Arteko Batzordea; Lankidetzeta eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Arteko Batzordea.

Proiektuaren xedapenei gagozkiela, lehen xedapen gehigarriak Euskadiren Idazkaritza Nagusietako, Zuzendaritzetako eta Kanpoko Ordezkaritzetako titularrak kanpoan edo gaixorik daudenean horien ordezkapenak egiteko arauak zehazten ditu.

Bigarren xedapen gehigarriak, berriz, Madrilgo eta Kolonbiako ordezkariak sortzen ditu. Zentzu horretan, Lehendakariaren egitura organikoaren dekretu-proiektuaren 18. artikuluan, Euskadiren Kanpoko beste ordezkari batzuei buruzkoan, Euskadiren ordezkariak aurreikusten dira Argentinan eta Uruguain, Txilen, Kolonbian, Estatu Batuetan eta Kanadan, Mexikon, Frantzia eta Madril.

Hasierako bertsioaren dekretu-proiektua aldatu egin da, Madrilgo beste ordezkari bat gehitzeko. Ordezkari hori Kolonbiako ordezkari berriaren sorrerara batu da, azken hori aurreko Txileko, Peruko eta Kolonbiako ordezkarietatik zetorrena. Esandakoaren haritik, aipatutako dekretu-proposamenak 2. eta 18. artikuluetan aurreikusten du Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko Idazkari Nagusiaren egituran txertatuta dagoela, besteak beste, Euskadiren Madrilgo Ordezkariak.

Adierazi behar da Madrilgo Ordezkariaren aukera ez dela berria, lehen zegoen bulegoaren ordezkari. Izan ere, urtarrilaren 28ko 9/2003 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Madrilgo Ordezkariak sortu zen, eta geroko dekretu bidez indargabetu zen (1/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, Jaurlaritzaren Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, eta 187/2013 Dekretua, otsailaren 9koa, xede berekoa).

Hori dela eta, Kolonbiako ordezkariak eta Euskadik Madril duen ordezkariak sortzen dituen proiektuaren bigarren xedapen gehigarrian ere alderdi hori aipatzen da, eta beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak eman beharko zaizkie.

Hori horrela izanik, dekretu-proiektuan jasotako erregulazioa 40/2015 Legearen 5.1 artikuluan aurreikusitakora egokitzen da (funtzioak, menpekotasun hierarkikoa, etab.), bai eta Euskal Sektore Publikoari buruzko 3/2022 Legearen aurreikusitakora ere, zehaztasun nahikoarekin identifikatzen baitira dauden ordezkari guztien eginkizunak.

Bestalde, hirugarren xedapen gehigarriak aurreikusten du Ogasun eta Finantza Sailak, horretarako aurreikusten diren zuzkiduren barruan, dekretu honetan

aurreikusitakoa eraginkorra izateko behar diren baliabide ekonomikoak emango dituela. Horiek horrela ere, ezinbestekoa da Zerbitzu Zuzendaritzaren ekonomia-memoriara jotzea, non, besteak beste, ordezkaritza abian jartzeko eta funtzionatzeko beharrezko kredituen zuzkidura zerrendatzen diren.

Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legea betetzeari dagokionez, esan behar da ez dela inolako eragozpenik proposatutako helburuari dagokionez.

Gai hori Euskadik bereganatutako eskumenen zerbitzura dagoen administrazio-autoantolaketakarako ahalean ere sartzen da. Hala, Gernikako Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua Euskadiko Autonomia Erkidegoari ematen dizkion autogobernu-erakundeen antolamendu- eta funtzionamendu-arloko eskumenek justifikatzen dute.

Nolanahi ere, ordezkaritza horien sorrerak Estatuaren Kanpo Ekintza eta Zerbitzuari buruzko martxoaren 25eko 2/2014 Legearen 12.1 artikuluan aurreikusten den txostena eskatzea ekarriko du. Artikulu horretan ezarritakoaren arabera, autonomia-erkidegoek eta hiri autonomoek kanpo-sustapenerako bulegoen ezarpenaren berri emango diote Espainiako Gobernuari, ireki aurretik, eta Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioak aztertu egingo du proposamena; horretarako, aintzat hartuko ditu Kanpo Politikaren gidalerro, xede eta helburuak, Kanpo Ekintzako Estrategia eta, bereziki, kanpoko ekintzaren batasun-printzipioa.

Zeharkako funtzio edo zereginei dagokienez, hau da, sail guztiek bultzatu beharreko politika komunei dagokienez, aipamen berezia berdintasunaren zeharkako funtzioei eta Hizkuntza-normalizazioarenei.

Batetik, Berdintasunerako Unitate Administratiboa azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak arautzen du. Sailaren zuzendaritza eta arloekin eta, hala badagokio,

erakunde autonomoekin eta erakunde publikoekin sustatu, koordinatu eta lankidetzan aritzeaz arduratzen da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, eta Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzean onartzen duen Berdintasunerako Planean xedatutakoa betearazteko.

Bestetik, Hizkuntza-normalizazioari dagokionez, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua betetzeko betebeharra aipatu baino ez.

Azkenik, egoki deritzogu Sailaren **Organo Estatistiko Bereziari** buruzko aipamen bat egiteari; izan ere, dekretu-proiektuaren testuan ez da inon jasotzen organo estatistiko hori, eta Jaurlaritzako Sailen Estatistikarako Organo Bereziak (EOB) arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak aurreikusi egiten du Sail bakoitzak bere Organo Estatistiko Berezia sortu beharko duela.

Hala, dekretu horren 1.2 artikulua zehazten du organo estatistikoa **dekretu** bidez sortu beharko dela eta Sail bakoitzak organo estatistiko bakarra izango duela. Era berean, 5. artikulua xedatzen du organo unipertsonalak izango direla EOBAk, goi-mailako kargudunaren artezko agintaritzapean edo sailean behar hainbateko eskuduntzak izan ditzan edo koordinakuntza-egitekoak bete ditzan beste organuren baten mende.

Beraz, dekretu horretan agindutakoa betetze aldera, eta kontuan izanik Sail hori osatuko duten organoak sortu, kendu edo berrantolatu egingo dituen dekretu-proiektu baten aurrean gaudela (egitura organikoari buruzko dekretua), ez dugu oztoporik ikusten Dekretu honen bidez Organo Estatistiko Berezi hori sortzeko, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.2 artikulua xedatutako esparruaren baitan, zeinak sailburuen esku uzten duen Lehendakariari Sailen egitura eta antolaketa proposatzea, Lehendakariak bere onespena eman diezaien.

Horretarako bide egoki bat, dekretu-proiektuari xedapen gahigarri bat gehitzea izan liteke, honako idazkerarekin:

“XX xedapen gehigarria: Hezkuntza Sailaren Organo Estatistiko Berezia Sortzea”

Xedapenaren edukiari buruz, berriz, komenigarria izango litzateke Jaurlaritzako Sailen Estatistikako Organo Bereziak arautzen dituen 180/1993 Dekretuaren funtsezko edukia jasotzea.

Hala ere, iradokizun hau kontutan hartuko balitz, kontutan izan beharko litzateke erebai EOB hori sortzeko dekretuan honako dekretuati gehituko liokeen izapidetze berezia, jarraian aztertuko dugun bezala.

II. Izapidetzea

Aztergai dugun dekretu-proiektuak xedapen orokorren izaera du. Beraz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean jasotako manuzko izapideak bete beharko ditu, eta betetzen ditu.

Azterketara igorritako agindu-proiektuaren testuak bete egiten du Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 10.4 eta 14.5 artikuluetan hizkuntza ofizialen berdintasunaren erregulazio-printzipioari buruz eta testua bi hizkuntza ofizialetan idazteko betebeharrari buruz ezarritakoa; izan ere, testua bi hizkuntzetan idatzi da hasieratik, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen, eta ondorengo faseetan ere ele bietan landu da, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, aldi berean.

Eta lojiko da holan izatea; izan ere, bi testuen segurtasun juridikoa bermatzeko ezinbesteko baldintzak dira horiek, kontuan izanda testuaren bi bertsio linguistikoak direla ofizialak eta benetakoak. Horrela jokatuta, prozeduraren bermeak bi bertsiook dituzte, eta horrek ez soilik zehaztasun eta baliokidetasun juridikoa hobeto bermatzea, baizik eta segurtasun juridikoa handiagoa izatea dakar.

Bestalde, EOBA dekretu honen bidez sortzeko proposamena aintzat hartuko

balitz, kontutan izan beharko litzateke dekretua onartu aurretik Euskal Estatistika Batzoreak arauzko informea eman beharko lukeela, ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuaren, Jaurlaritzak Sailen Estatistikarako Organu Bereziak arautzen dituenaren 1 atal edo artikulua eskatzen duenaren arabera.

II. Ondorioa

Beraz, adierazitako ohartarazpenak eginda, aldeko irizpena ematen diogu legezkontasun-azterketara aurkeztu diguten dekretu-proiektuari.

Hori da igortzen dudana txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen mende jartzen dut.

Euskadiko administrazio orokorraren zerbitzu juridiko nagusiko letradua

